

[b]

**BARREN**

ELGOIBARKO ASTEKARIA

616. zkia.

XV. urtea

2007ko ekainaren 1a

Trinitate Jaiak

# Barren barrenetik "Beti Elgoibar"



# Belaustegi Baserria



## JATETXEA



### Ekainaren 1etik irailaren bukaerara arte

- Lorategian bazkaldu edo afaltzeko aukera.
- Ostiral eta larunbatetan, gaueko 10etatik aurrera gure lorategi ederrean kopak hartzeko aukera ezin hobea.

San Migel Gaina z/g - Tel. 943 74 31 02

# ZEZEN-BIDE

## AUTO ESKOLA



Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez** teoria ikasteko gela berria!



### ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

**San Frantzisko, 43 - 1. solairua**

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

**Ego Gain, 4 behe**

(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR



UXUE ALBERDI

Bete du sabela boak, Imanol. Jadanik badauzkagu emaitzak, eta badakigu gure iritziak zer leku behar lukeen boaren estomagoan. Baina gosez geratu omen da boa. Asko izan dira bozkatu ez dutenak.

Lagun baten ahotik entzun dut: "laster gehiago izango dira bozkaten ez dutenak bozkaten dutenak baino. Porrotera ote doa gure sistema?". Ez dut uste sistemaren beraren errua denik, baina, baliteke. Argi dago zer bait aldatzeko gogoia duenak bozkatu egiten duela. Begira, bestela, Nafarroara. Begira, jokoan parte hartzen utzi ez dietenei. Horiek ohetik jaiki eta bozkatzera joan dira. PNV izan da galtzaile nagusia hauteskundeotan. Bai herrian, bai Gipuzkoan oro har. Abstentzioa kontuan hartuta, bozka baliogabeak (ez ote dute bi aldiz balio?) izan dira kopuruz gora egin duten bakarrak.

"Iritzi guztiak onartzen ditut; iritzirik eza ez", kantatu zuen Andoni Egañak Euskal Herriko egora politikoaz ari zela. Zer dago abstentzio horren atzean? Kapitalismoak zainetan sartu digun pasibotasuna? Nor geratu da ohean?

Baina abstentzioak abstentzio, dagona dago. Espainiako legeen arabera demokrazia ez bada herriaren ispilu, ez dezagun utzi gure udalean ere gerta dadin. Ezin da inoren ahotsik lapurtu. Irribarre egiten badugu, ez pentsa pozik gaudenik: hortzak erakusteko beste modu bat da.

## ZOZOAK BELEARI...



IMANOL LARRAÑAGA

Askotan, isilik geratzen garenean esaten dugu gehien, Uxue. Nik ez nuke esango botoa eman ez zutenak ohean geratu zirenik; edo iritzirik ez dutenik. Domekako abstentzioaren atzean, behar bada, *aspertu naiz!* zioen garrasi isila egon daiteke. Edo, akaso, *ez dot zuekin ezer ere jakin nahil!* esateko modu bat da. Igual, alderdi politiko-egoitzetako aldaba jotzeko beste era bat da. Ez ziren botoa ematera joan, baina alderdiaren batek jaso du hauen *errekadua*.

Zureen aldean kamutsak ditudalako izango da, behar bada, baina ez dut uste hortzak elkari erakusten hasi behar dugunik. Lehen ere denbora gehiegi daramagu, txakur amorratuak bezala, batzuk eta besteak zelako hagin zorrotzak dauzkagun erakusten. Hortzak zorroztearen alde nago, baina mahai gainean daukagun ogi gogorrari, behingoagatik, hagina sartzeko, eta ez aldamenekoa beldurtzeko. Eta, ahal bada, ogia lizundu aurretik egitea komeni zaigu, gainera.

Koloreak eta ahotsak asko eta diferentek izan behar dute hurrengo lau urteetan Elgoibarko udaletxean. Hori ona da. Denok berdin pentsatzen ez dugunaren adierazle garbia. Orain, bakoitzak berea esan eta defendatzeko modua egin behar dugu. Libre eta inori ahoa tapatu gabe. Baliteke oraindik pozik egoteko motibo handirik ez izatea, Uxue, baina hortzak estututa berba egitea oso zaila da.

«Asko  
izan dira  
bozkatu  
ez dutenak»

UXUE

«Askotan,  
isilik geratzen  
garenean esaten  
dugu gehien»

IMANOL



ISILTZEN DAKIENA JAKINTSU HANDIA



Esaera zaharra

## Gogoetak, ametsak eta galderak

Aspaldixan, gure agintarixak herrixan itxuria hobetzeko eta txukuntzeko erakutsi daben interesa ikusitta, elgoibartar bezela nere ikuspuntua azaltzia nahiko neuke.

Begi bistakua da, herrixa alde bate-tik bestera errepide nagusitik pasatzera-kuan, ibai ertzeko etxepietan egindako obrak asko hobetu dabela inguru hortako itxuria. Baina, ikusi deigun zelako egoerikin topo egin leikien kanpotik datorren edozeinek, behin autopistako errotondia laga eta gero.

Hasteko, eskumatik lantoki batzuk ikusiko ditto, eta aurrerago lbaitarte eta Lerungo industrialdiak. Horrela, herri industrial txukun eta garbi baten aurrian daguala pentsatzen hasiko da. Bat-batian, Lerun gaineko pare bat etxe azalduko dira, bata erdi jausitta, tailatu gabe, eta bestia oso itxura txarrekin.

Melittongo errotondia atzian laga, eta bere eskuman, txabola zahar batzuk ikusiko ditto, inguruan zakar mordo bat dala (karabana txiki baten barruan juan ezker nahikua asti ematen dau). Gero, gasolinerari parian, asfaltatu gabeko aparkaleku bat, publikua edo pribatua dan antzik eman ezin jakona. Onduan, ixa errepidera ailegatzen dan ortu bat. Eta segittuan geldittu biharra izan leike

Goratu lan tokixan sartu-urteneko manio-brak egitten dabilen trailer batekin topo egin dabalako. Hau dana errepide nagusi erdi erdixan.

Halako batian, semaforora heldu eta, goriz baldin badago, geldittu biharrian izango da. Bittartian eskubittara begiratu eta hutsik daguan eraikin bat bistaratuko jako, "Pulimentos Pako" kartel bat isegitta dabala, eta ezkerretara begiratu ezker, "Guass"eko eraikina, hau ere kristal gabe eta itxura kaskarrekin.

Ze sentsazio izango dau gure herrira hurbiltzen dan pertsona horrek?

Behin ametsetan jarritta (ez da asko kostatzen eta), zelakua gustatuko litzakitt izatia herriko sarrerira?

Esaterako, eskumara, semaforuen aurretik, teitlatudun frontoi on bat, eskubaloi eta saskibaloiko kanpuak, bertara duazenezako kotxe eta autobusentzako aparkalekuarekin, izan ere oin polikiroldegira datozenak San Rokeko aldapan espaloi gainian aparkatzen dabe. Eta ezkeraldian, ibai ertzean zubittik gasolindegira bittartian, herriko jubilatuentzako ortu publikuak. Astakerixia al da? Ala oraindik etxe gehixago egin behar al da?

Elgoibarrera egunero lanera datozenetatik zenbatak aukeratzen dabe gure herrixa bizi izateko?

Zelako bizi kalitatia daukagu Elgoibarren inguruko herrixekin konparatu ezker?

Zenbat leku lortu dogu biztanlien gozamenerako eta aisialdirako azkeneko 40 urtian?

Ala, inguruko mendixak daude horretarako?

Sasoi batian lantoki batzuk urten zeben kanpora, ez al da berdina gertatuko pertsonekin?

Dana dala, aupu Elgoibart!

J.L.O.

## Eskerrik asko!

Elgoibarren izan dudan karguari esker, herria, herritarrak, bertako kultura, merkataritza, aisialdia eta ingurunea hobeto ezagutzeko aukera izan dut. Eskerrak eman nahi dizkiet konplizitate begiradak eta animuak emateko irribareak oparitu dizkidaten herritarrei, baita ere, euren kezkek nirekin konpartitu eta moralki lagundu didaten guztiei. Nire eskerrak, bestalde, udaletxetik Elgoibarren alde lan egiten dutenentzat, eta nola ez, aurreko legealdi atsegina nirekin konpartitu duten agintari politikoenentzat.

MARIA DEL MAR MARTINEZ GARCIA

E-POSTA

[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)



BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.



barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 74 41 12 • Faxo: ☎ 943 74 37 04  
E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
Publizitate: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: [barrenpubli@elgoibarkoizarra.com](mailto:barrenpubli@elgoibarkoizarra.com)

Argitaratzailea:



ELGOIBARKO IZARRA

ZUZENDARIA Enrique Bert **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Esther Gurrutxaga **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Gamendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Iñigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives **INPRIMATEGIA** Gertu **TIRADA** 4.630 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



## KEXAK

- **Pedro Migel Uruzuno kalean kotxeak bigarren ilaran egoten jarraitzen dute:** "Ez dago eskubiderik! OTA jarri zutenetik Plaza Txikian aparkatzeko lekua soberan egoten da, beraz, ez dago autoa bigarren ilaran lagatzeko aitzakiarik. Erosketak egin edo kafetxo bat hartzeko autoa bigarren ilaran lagatzea lotsagarria da. OTAko txartelak kontrolatzeaz gain, udaltzainek auto hauek guztiak kontrolatu beharko lituzkete."

- **Alderdi politiko batzuk ez dituzte kartelentzako guneak errespetatu:** "Hauteskunde kanpainan leku konkretu batzuk jarri ziren kartelak pegatzeko, baina batzuk ez dituzte gune horiek errespetatu. Edozein lekutan ezin daitezke kartelak jarri!"

- **Kanposantu aureko zubia oso egoera txarrean dago:** "Sigma auzoan, kanposantu aurrean dagoen zubia oso egoera txarrean dago. Harriak errepidera erortzen dira askotan, lurra erabat labainkor dago eta euria egiten duenean, batez ere, oso arriskutsu jartzen da. Urte asko dira dagoeneko zubi honetan berrikuntzak egin zirela, eta badauka beharra. Joan zen astean semea eta biok erori egin ginen. Ez zigaigun ezer larririk gertatu, baina sustoa sekulakoa izan zen. Ezbeharren bat gertatu aurretik, zubia konpontzeko eskatuko nuke."



## TXALOAK

- **Zorionak C.D. Elgoibarko kadeteen taldeari mailaz igotzea lortu dutelako:** "Txalo bero bat eta zorionak eman nahi dizkiegu Elgoibarko kadeteen taldeari, aurten denboraldi bikaina egin dutelako. Urtean zehar eginiko lanak bere saria izan du eta mailaz igotzea lortu dute. Jokalari guzientzat eta Alberto Hernandez eta Unai Muguruza entrenatzaileentzat ere, txalo zaparrada handi bat".

- **Txalo bero bat BARRENeke lantaldearentzat hauteskundeetan egindako lanagatik:** "Udal hauteskunderen jarraipen oso ona egin du BARRENeke, lan bikaina, txalotzeko modukoa benetan. Elkarrizketa digitalak eta hautagaiekin eginiko mahaingurua oso ondo egon ziren. Baina batez ere, astelehen goizean, egunkariarekin batera hauteskunderen emaitzen informazioa jasotzea, bikaina izan zen. IOekoa merezi duzue!"

Aital honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** barren@elgoibarkoizarra.com  
 Nafarroa enparantza, 2  
 20870 ELGOIBAR  
 ☎ 943 74 41 12



Elgoibarko  
Udala



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza







## URRUZUNIOREN *Luma*

### Arrazakeria

“Maiatzaren 27a egun berezia da. Gure ametsetako asko egi bihurtuko direlako”. Antzeko zerbait zioen iragarki bat entzun nuen joan den astean euskal irrati batean. Kanpaina betean bonbardatu gaituzte, eta bozkatzeko eskatu. Jakin nahi nuke noren ametsak bete ziren maiatzaren 27an. Iragarki hura ez zen niretzat, ez horixe. Jende asko ikusi nuen boto-paperak hartzeko paratzen dituzten kutxetatik esku hutsik ateratzen. Horiek ez zuten euren boto-papera aurkitu. Askok hauteslektatik alde egiten zutela ikusi nuen. Jakin-mina sortu zidan horrek, eta jakin nahiarri ez ezinik, zer aterabide zuten galdetu nion nire buruari. Zain geratu nintzen. Boto-papera eskuan itzultzen ziren asko, minutu gutxira. Arrazakeria zer den galdetu nahi diet maiatzaren 27an euren ametsak bete zituztenei. Ez al da ba koloreagatik, kulturagatik, pentsaeragatik, usteengatik, nahiengatik, sexuarengatik norbait bazterteza? Maiatzaren 27an arrazakeria nagusitu zen Euskal Herrian. Ni ere arrazista bihurtzeraino...

Ainhoa Lendinez

## [ ZORTZIKO TXIKIAN ]



### IDOIA OIARZABAL

ARAURI DENDAKO  
ESTETIZIENA

• **Nola lor dezakegu azal osasuntsu bat?**

Egunero bizpahiru aldiz ongi garbituz eta hidratatuz. Hori da garrantzitsuenak.

• **Ximurren agerpena sahisteko erremediorik?**

Azala ondo hidratatua izateaz gain, asko mimatzea.

• **Aurpegia margotzeko kolore ilunak modan al daude?**

Orain ez dira gehiegi ematen. Niretzat politena, azal zuria da, kolorete pixkatekin, nahiz eta udan beltzarano egoten garen.

• **Fotodepilazioaren abantailak?**

Ilea kantitate handian kentzen da eta behin betirako esan daiteke, gainera. Pertsona bakoitzaren azal eta ile motaren arabera izaten da sesio kopurua. Normalean, 6 saio.

• **Aukeran: perfume suabeak, freskoak ala sendoak?**

Niri suabeak gustatzen zaizkit.

• **Zein da dendan egun dituzuen politen tendentzia?**

Polito handiak daude modan eta koloreei dagokionez, denarik eramaten da. Erosotasuna dela-eta, gurutzatuek ere, harrera ona dute jendearengan.


• **Emakumeari zuzenduriko opari bat?**

Edertasun tratamenduak gerroz eta gehiago oparitzen dira.

• **Emakume baten amairuan falta ezin duen osagarri bat?**

Emakumeok osagarri guztiak ditugu gustuko.

Gurea ere **maiatzean** loratu da



[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)

Elgoibarko berri izateko beste modu bat.



## [AKORDATZEN NAIZ]



**ITZIAR AJURIA**

1924an jaioa

«Gerria»

**12**urte naukazen nik gerria hasi zanian, baiña ondo gogorazten naiz. Oñ askotan amaixora jun, eta ez dot jakitzen zertara juten naizen ere, baiña gerra-denporiak in ondo akordatzen naiz. Gogorra izan zan. Ez genduan dirurik ere! Nere bi anaixa Bizkaira jun ziran, eta bestia Burgosen harrapau zaban gerriak. Aittak dudia zakan Bizkaira jun edo ez, baiña andria eta albia lagata ez zaban juaterik nahi. Batzokiko lehendakari zan aitta 36-xan.

Azkenengo momentuan etxian geratzia erabaki zaban. Aitiak itxi eta hantxe gorde giñan. Dana eruan zeben, etxia hutsik laga ziguen. Egunero genduan bisittia, Guardia Zibillana, edo Falangeko batren bat. Gure ama balkoera urtetzen zan, eta San Frantzisko kalia Guardia Zibilla ikusten bazaban, haura pasau arte hantxe egoten zan begira. Anaixa bat soldau zavan eta zertifikau baten jartzen zaban: "Consta que tiene un hijo adicto al movimiento".

Haretzek salbau zaban gure aitta. Osabari bialdu zion aittak abisua esanez geratzeko Bilbon sekretarixo: Sondikako udaletxian egitten zaban lan,



oposizio bidez kargua hartuta; bere aurretik zavana kalera bota zeben. Tropak sartu ziranian hari sekulako kondekorazua egin ziuven, eta hala esan zaban harek: "hasta que a Ajuria le vea en el paredón, no pararé". Eta halaxe, ekaiñaren 19-xan sartu ziran Bilbon, eta osaba irailian hil zeben. Karrantzaraino iritsi zan osaba, baiña umiak lagata harek ere ez zaban alde egin nahi; gaiñera, berak ez omen zaban ezer egin, eta geratu egin zan Bilbon. Bost umekin geratu zan alarguna.

Emakume oso alaixa zan, eskerrak. Bi ume txikixenekin geratu zan bere aman etxian, bestietako bat gurera etorri zan, beste bat Eibarren, eta beste bat osaban etxian. Bost ume atera egin bihar zian aurrera, gero!

## [GURE BERBAK]

*Fonologia (11)*

**KONTSONANTE TALDIAK BAKUNTZIA**

Nahiko arrunta da Elgoibarren ere bestelako euskerena ere badan joera hau: garai bateko euskeriaren fonologixarentzat arrotzak ziran beste hizkuntzetatik mailleguz ekartzen zirasn hiizetako kontsonante-tal-diak, eta talde horrek hautsi egiten zittuen euskeriaren sistemak, bakundu. Argi ikusten da bilakabide hori gure adinekoren ahozko jardunian.

*arre(g)lau  
tra(k)toria  
bizi(k)letia  
bizik(l)etia  
kara(k)terra  
pro(b)lemak  
ane(k)dotia  
dire(k)to*

Hona adibide batzuk bere testuinguruan:

*Eta gero, ba, biziketia hamazazpi urtekin edo, biziketa zahar bat hartu naban.*

*Eta nik han ikusi najuan zela arrelatzen zaban, eta gero etorri hona, eta banakixan nik zela arrelau deposittua.*

*(...) anedotia politta, zergatik guk dotriñata euskeraz emate(n) genduzen, beti. Liturgia beti eman juat euskeraz.*

*Jesus Mari Makazaga*

# Gorbea

JATETXEA

*Zatoz!!*

Ekainak 1, ostirala  
Arratsaldeko **18:30**etik **20:30**era

**INAUGURAZIOA**

Santa Ana, 10

Tel: 943 74 05 80

**JOSE AZPIAZU** TXORI KANTARIETAN ADITUA

## «Txorien trebakuntza lanean hilabeteak aritzen gara»

*Jose Azpiazu 63 urteko elgoibartarra da. Gaur egun Deban bizi da eta betidanik izan ditu gustuko txoriak. Hori dela-eta, gaurkoan, txori kantarien mundu harri-garran murgildu nahi izan dugu, eta bide batez, askorentzat guztiz ezezaguna izango den gai honen nondik norakoak azaldu dizkigu Josek.*



### ► Zenbat denbora daramazu txori kantarietan lanean?

Betidanik izan dut txoriekiko zaletasuna. Gazteak ginenean, Mintxetako zelaira joaten ginen, kardantxiloak eta beste hainbat txori hartzera. Lanean hasi nintzenean ordea, 15-20 urtez alboratuta eduki nituen txoriak.

Duela bost urte, adiskide batzuk Deban elkartu ginen, eta txori kantarien lehiaketak antolatzeko asmoak bul-tzaturik, Debako Lubina ehiza eta arrantza elkartearen bitartez aurrera egitea erabaki genuen. Aldez aurretik, udaletxearekin hitz egin eta bere onespina izan genuen. Hone-la, pixkanaka ekin genion lehiaketa hauek antolatzeari, Eibarren, zehazki, Arraten egiten diren txorien kanta lehiaketak eredu hartuz. Deba ez ezik, orain dela lau urte, Azkoitia eta aurten Mutriku gehitu dira txori kantarien lehiaketak antolatzen dituzten herrien taldera.

Azkenengo bi urte hauetan, Gipuzkoako txori kantarien txapelketak irabazi ditut kardantxilo misto (kardantxilo eta kanarioaren arteko nahasketa) batekin. Nik oro har, kardantxiloekin eta mistoekin egiten dut lan, orobat kamaba gazteekin. Foru Al-dundiaren eta Ehiza Federakundearen

baimenarekin hartzen ditugu aipaturiko txoriak. Hemen, Elgoibarren burugorriekiko afizio handia duenik ere bada, esaterako, Hilario Avila (sari asko eskuratzen dituen). Antonio Garrido eta Jose Maria de la Cruz ere hor daude, azken honek kamaba oso ona du.

### ► Nola irakasten zaie txoriei kantuan?

Espainiar Federazioko kantu kodigoan oinarrituta, CD batzuk daude eta beraue-tan, trino multzo bat dago grabatuta. Txoriak soinu horiek bereganatzen joan behar du. Funtsean, txorien soinuak edo kantak dira CD hauetan aurki ditzakegun doinuak: kamabarena, kaskabeltzarena... Egunean zehar, hiruzpalau orduetan jartzen zaie CDa; goizean, eguerdian eta arratsaldean.

Trebakuntza lan honetan negu osoan aritzen gara. Hasieran gazteak direnean, modu kontrolatu batean jartzen diegu musika. Goizeko zortzietan hasita iluntzeko bederatzirak bitartean eta hamabost minuturo. Horrela, txoriari hamabost minutuz kantua entzunarazten zaio eta ondoren, ordu erdiko atseden aldia ematen zaio. Aurrerago, txoria hazten dihoan heinean, geldiune hori ordubetez gehitzen da, denbora honetan, txoriak ordura arte entzundako guztia bere egiten ari den jakiteko. Txoriak entzuten duena errepikatu behar du.

Modu berean, garrantzitsua da, txoriak behin nagusi bihurtzen direnean, maiz larreratzea, horrela, ingurugirora ohitu daitezten. Aurten ezin izan ditugu txoriak larrera atera, Aldundiak ez baitigu momentuz horretarako baimenik eman, nahiz eta eskara azaroaren 30ean aurkeztu genuen.





Jose Azpiazu Gipuzkoako Txapelketan saria jasotzen.

*Euskal Herrian guztira, 2000 lagunek dihardute txori kantariekin lanean, federatuak eta omitologoak zenbaituta. Azken hauek, ordea, gehiago zentratzen dira txoriaren edertasunean, kantuan baino. Bizkaian, Gipuzkoan baino zaletasun handiagoa dago. Ideia bat egiteko, espainiar estatuan, txori kantarien jarraitzailerik gehienak Andaluzian daude 10.000tik gora, alegia.*



Bestetik, abesten ez duten txoriak aske uzten ditugu, beti ere, lehenago txoria bere ingurugiro berrira egokituz. Izan ere, pertsonekin gertatzen den bezalaxe, txori guztiek ez dute abesteko balio. Hori dela eta, agian, sei edo zazpi txori eduki behar dituzu, horietatik bat, dezente samarra ateratzeko. Kalifornian amerikarrek buruturiko ikerketa baten arabera, txoriak seitik hogeitabat eguneko bizitza tartean jaso eta bereganatzen ditu soinuak errazen. Hasierako musikak oso suabea izan behar du.

«Txori guztiek ez dute abesteko balio»

► **Zer edukitzen dute kontuan txori kantarien lehiaketan jarduten duten epaimahakideek?**

Epaimahaia osatzen duten adituek txori kantarien espainiar federakundeko

eredua hartzen dute oinarri txori kantarien saioa baloratzeko garaian. Bertan katalogatuak datoz mota orotako kantak: txioak, retrioak, bibleoak, akaberako koplak... Aipaturiko kanta hauen arabera, eta epaileek aditzen dutena aintzat hartuta, puntuazioak idazten dituzte. Horrez gain, penalizazio puntuak ere ematen dituzte. Zinez entzumen zorrotza eta ona dute pertsona hauek, izan ere, zazpi metrotara hiru zutoinetan jarrita dauden hiru txoriren kantak entzun eta bereizi behar dituzte, aldi berean.

► **Zenbat lehiaketetan parte hartu duzu eta zein izan dira zure lorpenak?**

Duela bi urte ekin nion. Iaz, lau lehiaketetan parte hartu nuen eta laurak irabazi nituen txori misto batekin. Aurten berriz, Navarreten (Errioxan) 2. eta 3. sariak eskuratu ditut txori berarekin. Mutrikun bestalde, bigarren geratu naiz beste txori misto bati esker. Iragan den maiatzaren 1ean Debako futbol zelaian, jokatu zen Euskadiko Txori Kantarien Txapelketan, nire txoriak ez zuen abestu eta ondorioz, ez nuen Espainiako txapelketarako sailkatzerik izan. Dena den, domeka honetan Guadalajaran jokatu den Espainiako Txori Kantarien lehiaketan, euskal ordezkariak izango ditugu. Lubina sozietateko gure ordezkaria, Pedro Maria Arrizabalaga on-

darrutarra izango da eta Azkoitiako Orion elkartetik, berriz, Pedro Avila, ere izango da. Gainerako parte hartzaile euskaldunak, bizkaitarrak izango dira.

«Betidanik izan dut txoriekiko zaletasuna»

► **Gehitzekorik?**

Txori kantarien inguruan interesatua dagoen orori, federatzeko eskatuko nioke eta horretarako eskaera orria Aldundiari luzatzeko, honela baimenak lortu ahal izateko. Bide batez, ahaleginak egiten dihardugu urte honetan Aldundiak baimena eman diezagun txorien harrapaketak irailaren erdialdean izan daitezen (Bizkaian egiten den bezala), honela txori gazteak hartu eta ingurugiro egokituak izan daitezen. Modu berean, txoriak larre-ateratzeko beharrezkoak ditugun baimenen zain gaude.

## [ PROTAGONISTA ]



### Aritz Monasterio

Amnistiren Aldeko Mugimenduak (AAM) jakinarazi duenez, Guardia Zibilak iraindu, mehatxatu eta jipoitu egin zuen Aritz Monasterio Lekeitio iteerako kontrol batean. Hilabete pasatzera etorri zen Perutik eta Granadan preso dagoen lagun bat bisitatu zuen. Handik astebetara gertatu zen guztia. AAMren esanetan, Aritzaren amaren kontra hasi zirenean, honek erantzun egin zien eta orduan hasi ziren kolpeak. Guardia Zibilak mendizalea salatu zuen autoritatearen kontrako atentatua egitea leporatuta. Ekainaren 4an Gernikako epaitegirira joan behar harko da.

## [ NOTIZIA ]

### Sei postu elgoibaltar izango dira Trinitateetako 12. Artisau Azokan

**T**rinitate Jaietako Artisau Azokaren 12. edizioa izango da domekan. Goizeko 10:30etik eguerdiko 14:30era, mota guztietako artisau lanak ikusteko aukera izango dugu Leku Eder parkean. Euskal Herri osoetik etorriko dira artisauak euren erakustaldia egitera. Guztira 24 postu desberdin jarriko dira, eta horietatik sei elgoibartarrak izango dira. Jose Membrillerak bere eskulanak erakutsiko ditu, Karkizano dendakoek frivolite, ehoziarik eta gantxillo lanak, Sabin Oregik bere jaiotza bitxiak, Mari Karmen Elorzak gantxilloa, Garbiñe Osa lore lehorrekin arituko da eta Egur Arte tailerrekoak margoketa eta esmaltea erakutsiko digute. Hauekin batera, larru lanak, pilotak, xaboiak, otarregintza eta zeramikak izango dira, besteak beste.

#### Egitarau zabala

Asteburu honetan ospatuko dira Trinitate Jaiak Elgoibarren eta antolatzaileek egitarau zabala antolatu dute aurtegoan ere. Zapatu goizean Trinitateetako VI. Azoka Berezia izango da Plaza Txikian. Elgoibarko baserietako produktuak erosteko eta dastatzeko aukera izango da bertan.



Eguerdiko aldera, artzai txakurren erakustaldia egingo dute Nafarroa Plazan, Iriarte baserriko 2 txakurrek eta Arostegi baserriko txakur batek. Musika ez da faltako jai hauetan. Inazio Bereziartua Musika Eskolako ikasleek kalejira egingo dute trikitilariekin batera, eta arratsaldean jaialdia eskainiko dute. Gavean, nagusien tanborrada izango da. Domekan, Txistulari Taldearen dianak esnatuko ditu herritarrak goizeko 9:00etan. Artisau Azoka, Meza Nagusia eta ondoren, umeen tanborrada hasiko da. Erraldoi eta buruhandien kalejirarekin amaituko dira jaiak.

## asteko [ ARGAZKIA ]



San Lazaro Egoitzako nagusiek bisita berezia izan zuten joan zen astean. Nagusilaneke Koroa izan zen bertan. Koro honetan 3 elgoibartarrek abesten dute, eta Gipuzkoa osoan aritzen dira zaharren egoitzetan abesten. Aurten, 30 kantaldi eskaini dituzte. Jose Mari Sorroa musikariak bestalde, Zaharren Biltokian abestu zuen duela pare bat aste. Ekitaldi hauek guztiak borondatezkoak dira, Nagusilan Elkartean bolondres aritzen dira jubilatutak. Domekan, San Lazaro Egoitzako nagusiak bozkatzera eraman zituzten.

## Udalak Altzolan "ezer gutxi" egin duela salatu du Zubibai Elkarteak



**O**tsailean bildu ziren Zubibai Elkartekoak Marivi Agirregomez-korta alkatearekin, Altzolako beharrei buruz hitz egiteko. Arlo desberdinetako 26 puntu biltzen zituen txostena aurkeztu zioten alkateari. Luze hitz egin ondoren, alkateak lanean hasiko zirela esan zien, eta berriz biltzekotan gelditu ziren. Zubibai Elkarteok jakinarazi digutenez, Udalak "ezer gutxi" egin du Altzolan: "bidea erdizka eta nahiko gaizki asfaltatu dute, kanposantuko kapila berritu eta bi parke konpondu dira". N-634 errepidearen gaiari lehentasun handia ematen dio-

te bizilagunek, izan ere, autoak ziztu biziari ibiltzen baitira Altzolan. Honi irtenbidea lehen bailehen eman behar zaiola diote. Etxebizitzaren inguruan, gehiago ez eraikitzeke eskatzen dute, ez baitago lekurik.

### Bileraren zain

Zubibai Elkartekoak bilera eskaera egin zioten alkateari martxoan, eta oraindik zain daude. Gobernu Talde berriarekin bilduko dira, eta batez ere, edozein proiektu egiterako orduan, beraien hitza entzuteko eskatuko diete.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Udaltzainen lan-poltsa

Elgoibarko Udalak udaltzainen lan-poltsa osatzeko oposaketa deialdia egin du. Eskaera orriak eta honi buruzko informazioa udaletxean bertan edo Udalaren [www.elgoibar.org](http://www.elgoibar.org) webgunean eskuratu daitezke.

### Bizkar hezurrari buruzko hitzaldia

Juan Alonso kiropraktikoak bizkar hezurrari buruzko hitzaldia eskainiko du datorren martitzenean, ekainak 5, Kultur Etxean, iluntzeko 19:00etan. Bertan, gizakiaren osasunean bizkar hezurak daukan garrantziari buruz hitz egingo du, eta bizkar hezurra ondo zaintzeko aholkuak eskainiko ditu.

### 1907ko Euskal Jaietako domina aurkitu dute

Sallobenteko Amesti baserrian bizi den Maria Luisa Astigarragak 1907. urteko Euskal jaietako domina bat aurkitu du bere txikitako jostailu artean. Dominaren jatorria ezezaguna da, baina Pello Arrieta historialariak jatorri hori ezagutzeko arrastoak zabaldu ditu: "dirudienez, 1907ko Euskal Jaietan baserriko tresnak erakusteko eta erabiltzeko egin zen lehaketako saridunei banatu zitzairen domina hau". Euskal Jaien mendeurrena dela-eta, Elgoibarko Udalak dominaren erreplika batzuk egingo ditu, beti ere, "ondare hori ez galtzeko".



## Organu emaileen informazio mahaia bihar, Plaza Handian

Ekainaren 6an Emailearen Nazioarteko Eguna dela-eta, Gipuzkoako ALCER elkarteak informazio mahaia jarriko ditu probintziako herri desberdinetan. Herritarak kontzientziatzea izango da honen helburua. Transplanteen beharra gero eta handiagoa da, organu baten zain dauden gaixoen zerranda luzea da, eta ALCER elkartetik dioten moduan, "emailerik gabe, ez dago transplanterik". Gai honi buruzko informazio mahaia jarriko dute bihar Plaza Handian, goizeko 10:00etatik 14:00etara.





# Inkesta

Organu Emaileen Nazioarteko Eguna izango da ekainaren 6an.

## Organu emailea al zara? Zergatik?

**JULIAN GONZALEZ**  
Udaleko langilea  
45 urte



“Ez. Beharrezkoa da organu emaileak egotea, baina momentuz ez naiz horretan pentsatzen jarri. Dena dela, honi buruz informaztea garrantzitsua da.”

**VICTOR DE DIEGO**  
Modelista  
33 urte



“Momentuz ez, baina egingo naiz organu emaile. Zomorroek jan aurretik, nahiago dut nire organuak beste norbaitek aprobetxatzea. Heriotzetik zerbait ona atera behar da.”

**M<sup>a</sup> BEGOÑA ALONSO**  
Etxekoandrea  
55 urte



“Ez dut ezer sinatu, baina nire senarrari esan diot behin baino gehiagotan, zerbait gertatzen bazait, ahal den gutia aprobetxatzeko. Ez dakit hitzekin nahikoa ote den.”

**M<sup>a</sup> JOSE UBIRIA**  
Medikua  
53 urte



“Organu emailea ez, baina odol emailea bai. Gainera oso kontzientziatuta nago gai honekin, eta ingurukoei esan diet nire gorputzetik dena aprobetxatzeko.”

## [ BAI ala EZ? ]

Reala eta Athletic lehenengo mailan geldituko al dira?

**BAI %8**

“Bai. Aukera oso gutxi dago, baina matematikak egiten jardun dut eta oraindik badaukat itzaropena. Bi jardunaldi falta dira eta espero dut, Levante edo Betis jaistea.”

**EZ %92**

“Ez. Bietako bat jaitsi egingo da, eta dirudienez, Realak izango da. Bi taldeek merezi dute jaistea, oso denboraldi tarra egin baitute. Nahiago nuke Realak mailari eustea.”

Datorren asterako... **Gidari arriskutsuei soldata kentzea aztertzen ari da Trafikoko Zuzendaritza.**  
**Ondo iruditzen al zaizu gidari arriskutsuei soldata kentzea?**

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) ERANTZUNA

**7505** zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.-a.



Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean.** Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

## JAIOTAKOAK



**Eritz  
Amutxastegi  
Yarza**  
[ Maiatzak 8 ]  
Iker eta Leire



**Peru  
Barrenetxea  
Arregi**  
[ Maiatzak 10 ]  
Pablo eta  
Oihana



**Peru  
Bereziartua  
Arenas**  
[ Maiatzak 11 ]  
Iñigo eta Monica



**Kira Zubizarreta  
de Sousa**  
[ Maiatzak 15 ]  
Kepa Joseba eta  
Simone



**Ane Dominguez  
Cid**  
[ Maiatzak 20 ]  
Martin eta  
Maitane



**Ayana Ibañez  
Fernandez**  
[ Maiatzak 8 ]  
Julio eta Maria  
Aranzazu



**Anwar Housni  
El-Atmani**  
[ Maiatzak 17 ]  
Lahcen eta  
Meryam

## HILDAKOAK

Ramon Canales • [ 90 urte ] • Maiatzak 2  
Alberto Garitano • [ 61 urte ] • Maiatzak 10  
Bizente Soraluze • [ 85 urte ] • Maiatzak 11  
Jose Maria Ansola • [ 86 urte ] • Maiatzak 18  
Teofilo Gonzalez • [ 84 urte ] • Maiatzak 23  
Floren Artetxe • [ 80 urte ] • Maiatzak 24  
Josu Endika Iriondo • [ 55 urte ] • Maiatzak 27  
Basilía Olaso • [ 85 urte ] • Maiatzak 29

## EZKONTZAK

Ander Barrenetxea eta Oihana Berasaluze [ Maiatzak 5 ]

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira **943 74 41 12** telefonora edo bidali e-postaz helbide elektronikoa honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

# ETXEBERRIA

**Hileta zerbitzua**  
OSOA eta 24 ORDUKOA

## TANATORIOA



**KUTXAK  
TRASLADOAK  
KOROAK**

**NORBANAKOEI  
eta KONPAINIEI  
zuzenduriko  
zerbitzuak.**

**Donostia eta  
probintziako  
erietxe zentroetan  
ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR  
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56  
(Mobila) 608 77 07 01



## IRAKASLEARI azterketa

DBHko irakaslea

AMAIA LARIZ



**1 Zergatik irakasle?**

Beti gustatu izan zait nik dakidana transmititzea eta jendearekin erlazionatzea. Gazteekin lan egitea gustatzen zait.

**2 Ikasle fina izan al zinen?**

Bai, ikasle ona nintzen.

**3 Irakasle gogorra al zara?**

Batzutan gogor jarri behar naiz ikasleen errespetua lortzeko, baina ez dut uste gogorra naizenik. Nik ere errespetatzen ditut ikasleak.

**4 Zaila al da ikasleak zigortzea?**

Ez da erraza. Zigortzeak esan nahi du zerbait ez dagoela ondo eta hori ez zaigu gustatzen. Ondo portatzea eta nota onak ateratzea nahi dugu.

**5 Zer behar du irakasle on batek?**

Irakasten jakin behar du, materia ezagutu eta klasea eramaten jakin.

**6 Zer ikusten da irakaslearen mahaitik?**

Dena, ikasleek uste dute ezetz, baina dena kontrolatzen da.

**7 Harrapatu al duzu ikasleren bat txuletaren batekin?**

Bai. Azterketa kendu eta suspentsoa jarri nion.

**8 Irakasle ez bazina?**

Ez nuke nire lanbidea aldatuko, irakasle izateko ikasi nuen Matematika.

## NOLAKO ENBORRA... halako ezpala



ANDRES DORTA **aita**

1. Uda, oporretan hondartzara joateko.

2. "Luna de avellaneda", asko gustatu zait.

3. Realak ditu aukera gehiago.

4. Pepinoa, ezin dut jan.

5. Astelehena, jai dudalako.

6. Ez daukat ohiturarik.

7. Arratoiek, ezin ditut ikusi ere egin!

8. Horixka.



CARLA DORTA **alaba**

1. Uda hondartzarako eta negua eskiatzeko.

2. "Mortadelo y filemon".

3. Realak, oso gaizki dabil.

4. Barazki purea.

5. Larunbata, lagunekin ateratzeko.

6. Bai, igandetan.

7. Sugeek.

8. Txuria.

## GALDERAK

1. Uda ala negua?

2. Ikusi duzun azken pelikula?

3. Realak ala Athletic jaitsiko da?

4. Gorroto duzun janari bat?

5. Zein da asteko egunik onena?

6. Joaten al zara mezatarara?

7. Zerk beldurtzen zaitu?

8. Zein koloretakoa da zure logela?



## TXIKI inkesta

Alkatea bazina, zer egingo zenuke herrian?

**Iskander Lopez**  
11 urte

Netto inguruan atrakzio parke bat jarriko nuke eta emakumeentzako Bingo bat.



**Nerea Cabo**  
10 urte

Ikastolako kanpoaldean eskailera mekanikoak egin eta Ikastolarako sarrera ordua 10:00etan jarriko nuke.



**Nerea Perez**  
10 urte

Zabor kontenedore gehiago jarriko nituzke herria garbi egoteko eta etxe gutxiago egin, mendiak ez apurtzeko.



**Elena Larreategi**  
10 urte

Merkadilloa herri erdira ekarriko nuke edo beste-la txu-txu trenara jarri Sigmara jendea eramateko eta herria ikusteko.



2007-06-01

## LEHIAKETA

Zer dago faltan, soberan edo aldatuta?



Erantzuna: .....

Izen abizenak: .....

Telefonoa: .....

**SARIA**


Elhuyar-ek eskainitako

"EUSKAL HERRIKO SOINU-TRESNAK"

CD-ROMa



**AURREKOA:**



Irabazlea: **Itoitz Vitores**

14 urtetik beherakoei zuzendutako lehiaketa.

Erantzunak BARREnera ekarri edo posta elektronikoz bidali:

[barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)



# GAZTIA NAIZ

## 10 tsaGA BE

Nerea Pascual 16 urte

**Oporrak iristear daude. Zein da zure plana?**  
15 egun Katalunia aldera joan eta gero hemen, jairik-jai ibili.

**Zer erreko zenuke gustura San Juan suetan?**  
Historia eta Lenguajeko liburuak.

**Zer moduz doa ikasturtea?**  
Ondo. Laster ditugu azterketak eta dena gainditzea espero dut.

**Etorkizunean, zer izan nahiko zenuke?**  
Fisioterapeuta.

**Salbatuko al dira Realak eta Athletic?**  
Athletic baietz uste dut, Realak zaila dauka.

**Jarraitu al dituzu hauteskundeak?**  
Piskat bai, baina politika ez zait gehiegi interesatzen.

**Aberatsa bazina?**  
Maite dudan pertsonarekin bidaiatuko nuke.

**Norekin joango zinateke uharte deserta batera?**  
Maite dudan pertsonarekin.

**Musikan, Rock-a ala pop-a?**  
Rockeroagoa naiz.

**Egiten al duzu kirolik?**  
Ez daukat denborarik, baina igeriketa gustatzen zait.

**Esna ala lotan egiten duzu gehiago ametsetan?**  
Esna ere egiten dut amets, baina lotan gehiago.

**Hondartza ala igerilekuak?**  
Hondartza.

**Beste neska batek maite zaituela esango balizu?**  
Ez dakit! Momentuan ikusiko nuke zer egin.

**Gizonak eta emakumeak berdinak al dira?**  
Bai, eskubide berberak izan beharko genituzke.

**Ezkonduta ala elkarrekin bizi?**  
Elkarrekin bizi.

**Ama izan nahi al duzu?**  
Momentuz ez.



## bituzik sexologia txokoa

Eider Goiburu [Sexologoa]

### Homofobia eta Transfobia

*Maiatzaren 17a, Homofobia eta Transfobiaren Nazioarteko Eguna izendatu dute. Gaur egun, gure gizarteko homosexual eta transexualen egoera aldatu dela badirudi ere, pertsona hauek mila mespretxu eta marjinazio jasan behar dute.*

Mundu mailan, Argelia, Senegal, Kamerun, Etiopia, Libano, Jordania, Armenia, Kuwait, Puerto Rico, Nikaragua, Bosnia eta beste leku askotan, homosexualitatea ilegala da. Nigeria, Libia, Siria, India, Malaysia, Kuba, Jamaika eta gehiagotan ere, kartzela zigorra 10 urtetik gorakoa da, Guyanan eta Ugandan betirako kartzela zigorra dute eta Arabia Saudi, Afganistán, Iran eta beste herrialde batzuetan ere, heriotza zigorra jasan behar dute.

Europa mailan, legeak aurrerantz doaz baina oraindik ezkontza zibila, bikote bezala erregistratzea eta adopzioa onartzen duten herrialde bakarrak, Holanda, Belgika, Euskal Herria eta Espainia dira. Baina honek ez du esan nahi euskaldunak homofobo eta transfoboak ez garenik. Oraindik betiko txiste horiek entzun beharrean gaude, normalak ez direla ere entzun dezakegu. Ikaste-txeetako geletan, pertsona bat homosexualak dela pentsatuz gero, alde batera uzten

dute eta burla egiten diote. Normala ez dena, zera da, gaur egun oraindik errespetu falta hori egotea. Bikote heterosexual bat katean musukatu daiteke inoren begiradarik jasan gabe, zergatik homosexualak ez? Bikote heterosexual batek, heterosexualak direla eta bikote direla esan dezakete, zergatik jasan behar dute hainbeste beldur homosexualak direla esateko? Bikote heterosexual bati errespetua zor zaio heterosexualak izateagatik, zergatik homosexualari ez?



## MILA ESKER

*Zuen konfidantza eman diguzuen mendarotar guztioi*



TRINITATE JAIK

## Berrikuntza askorekin dator aurten Trinitateetako danborrada



**T**rinitateetako nagusien danborrada "Beti Elgoibar" pieza joz hasiko da, ekainaren 2an, gauerdian.

Aurten estreinakoz pieza abesteko aukera izango da, gainera, Uxue Alberdi idazleak jarri baitizkio hitzak Txomin Mugica elgoibartarrak sortutako konposizioari. Doinuari ahotsa jarriko diotenak, Sorailuzeko Ezoziako Ama Abesbatza eta Gas-teizko Canta Cantorum izango dira, Silvia Hernandez elgoibartarraren zuzendaritzapean. "Beti Elgoibar" doinuaren ondoren, Donostiako martxa eta Artillero kanta aski ezagunak interpretatuko dituzte, azken hau, abesbatzek, salbeek eta kainoikadak

lagunduta. Ez da ordea, berritasun bakarra izango, iazkoa gainditu nahian danborrada ikusgarria antolatu baitute Danborradako batzordeko lagunek, tartean, oraindik jakitera eman nahi ez duten ezusteko bat edo beste ere bai. Aurtengoan 310 lagunek hartuko dute parte Trinitate jaietako danborradan. Jeneral lanetan Antton Bergara arituko den bitartean, jeneralaren emaztearen papera Begoña Arizmendik hartuko du. Honenbestez, danborrada hau gertutik ikus eta entzun nahi duzuenok, jakinarazi nagusien danborradarekin, bihar gaueko 23:30etik aurrera duzuela zita Plaza Handian.

### Bertsu udalekuak

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak bertso udalekuak antolatu ditu Aurbixan. Egonaldi horien bidez, ongi pasatzeaz gain, euskara landu, bertsoekin gozatu, bertsolarien bisitak jasotako eta elkar ezagutzeko abagunea izango dute 15-18 urte bitarteko gaztetxoek. Udaleku hauek, uztailaren 12tik 21era luzatuko dira eta egonaldia diaren prezioa 165 eurokoa izango da. Izena emateko epea maiatzaren 30era arte egongo da zabalik eta Elgoibarko Udaleko Euskara Batzordeak matrikularen %40a ordaintzeko laguntza emango die egonaldi horietan parte hartu nahi duten ikasleei. Horretarako, ordea, gaztetxoek ordaindutako matrikularen egiaztagiria aurkeztu beharko dute Elgoibarko Udaleko Euskara Sailean uztailaren 12a baino lehen.

### Bertsotranpak ikuskizuna

Bertsotranpak ikuskizuna ikus eta entzuteko aukera izango dute gaur iluntzeko 22:00etatik aurrera Herriko Antzokira hurbiltzen direnek. Taula gainean, Ander Lipus, Andoni Egaña, Xabier Paya, Fredi Paia eta Aitor Agirianok jardungo dute, bertsoak, musika eta antzerkia uztartuz.

## Jasone Osorok Greta liburuaren gaztelarazko bertsioa aurkeztu du Seix Barral argitaletxearen eskutik



Jasone Osoro idazle elgoibartarrak, Greta liburuaren gaztelarazko bertsioa aurkeztu zuen, pasa den ostegunean Madrilan, Seix Barral argitaletxearen eskutik. Honakoa, Seix Barralekin argitaratzen duen bigarren nobela da, 2003. urtean, "Desnudos" (Korapiloak liburuaren bertsioa) plazaratu zuen-eta. Greta liburuaren aurkezpen ekitaldian, aita bixi bezala, Marta Rivera de la Cruz (iazko Planeta sariaren finalista) eta Eduardo Mendicutti egon ziren. Beraien hitzetan, honakoa liburu "extrabagante" bat da eta besteak beste, "bakardadea, identitate falta eta Peter Panen sindromea islatzen dira". Horretaz

gain, narrazioan erabiltzen den hizkuntza bisuala dela adierazi zuten eta elkarriketen bizitasuna azpimarratu zuten. Martak, bereziki, epilogo nabarmendu zuen: "irakurleari egiten zaion opari bat da eta nobelak bigarren zati bat izan dezakeela aurreikusten uzten du".

Modu berean, jakinarazi, Jasone Osororen "Jara, bikiak eta bikoteak" liburuak Galtzagorri Elkarteak antolatzen duen Liburu Gaztea lehiaketan, DBHko ikasleek hautaturiko liburu gustukoena-aren saria jaso duela. Sari banaketa ekainaren hasieran egingo da Donostiako Koldo Mitxelena.



Giza Eskubideen Plaza, 1

Tel.: 943 74 34 40

Mobila: 659 36 87 84 / 620 85 50 97

E-posta: info@aupasolucion.es

## PERTSONEI EUREN EGUNEROKO BIZIMODUAN LAGUNTZEKO TEKNOLOGIAK

*Gure enpresaren helburua heritarrei euren eguneroko bizimoduan laguntzea da, ekintza pertsonal, eta profesionaletan. Pertsonen bizi kalitatea hobetzeko tresna moldakor eta laguntzaileen bidez, beraien garapen pertsonal eta profesionala bilatzen dugu.*

### • Zer da "Aupa Solucion"?

Teknologia laguntzaileen bidez, pertsonen bizi kalitatea hobetzera bideratuta dagoen enpresa berria da.

### • Zer dira teknologia laguntzaileak?


Teknologia (mekanika, mekatronika, elektronikak, telekomunikazio materialak...) pertsonen eskura jartzea da, euren eguneroko bizimoduan laguntzeko, eta beraien garapen pertsonal eta profesionala indartzeko.

### • Norentzat dira?

Denok atera dezakegu onura, bai momentu puntualetan (denboraldi bateko gaixotasuna, mugikortasun galera...) edota betirako, izan ere, teknologia hauek herri guztietan dauden oztopo arkitektonikoak gainditzen laguntzen digutelako. Hasiera batean, mugikortasun arazoak zituzten pertsonen zuzendutako teknologia ziren, baina gaur egun, teknologia hauek gure bizitzako ziklo guztiak indartu ditzakete: haurtzarora, gaztarora eta zahartzarora. Gainera, ekonomikoki poltsiko guztietara egokitzea da gure nahia, ekonomia ez izatea teknologia hauei lekua egiteko oztopoa. Irisgarritasun soluzioak behar dituztenentzat administrazio sentsible eta aktiboa egiten dugu.

### • Zein irtenbide eskeintzen dute?


Gure inguruan, etxebizitzetan eta beste azpiegiturretan dauden oztopo arkitektonikoetatik hasita (eskailerak eta aldapak), eguneroko ekintzetan laguntzeko tresnak



eskeintzen dira: pertsona bilatzaileak, automatismoak, garraio egokitu...

### • Nork egiten ditu tresna hauek?

Eskaintzen ditugun irtenbide gehienak, Euskadin eginikoak dira. Kalitatezko produktuak dira, pertsonen errespetuz jokatzen dutenak eta etengabe merkatuaren beharretara egokitzen direnak. Produktu hauekin herritarrei norbanako eta kalitatezko zerbitzua eskaintzeko konpromisoa hartzen dugu. Euskadiko bizilagunak populazioaren zahartzearekin eta gure bizitzako etapa guztietan bizi kalitatea bermatzearekin sentsibilizatuta daude. "Aupa Solucion" enpresak gure garapena bultzatu eta irtenbide berriak bilatzeko konpromisoa hartzen du.



## ESKUBALOIA

### Lojantzi senior neskak Gipuzkoako Kopako txapeldun geratu dira



**L**ojantzi nesken taldea Gipuzkoako Kopa Txapelketako irabazle geratu da senior mailan. Pasa den zapatuan, Leizaran taldearen aurkako partida irabazi zuen (10-37), Andoainen jokaturiko neurketan.

#### Kadete neskak

IMH taldeko jokalariak berriz, bihar partida erabakigarria izango dute. Kadete mailako Gipuzkoako Kopa Txapelketako finala jokatu dute Leizaran eta Usurbil taldeen aurka.

Olasa infantil nesken taldeak berriz, bihar Euskadi Txapelketako finala jokatu du Faturan. Bi norgehiagoka izango dituzte: lehena, Bizkaiko txapeladunen aurka, 12:00etan eta bigarrena, Arabako txapeladunen aurka, arratsaldeko 18:00etan. Modu berean, jakinarazi, kadete mutilen ekipoa osatzeko, jokalariek behar direla, datorren urterako. Hori dela-eta, eskubaloian jokatzeko intersa duten 1992-1993 urteetan jaiotako mutilak Olaizaga Polikiroldegitik pasa daitezke ekainaren 5ean 19:00etan eta Mikel Izetaz galdetu.

#### Udako Kirol Kanpaina

Udako kirol kanpainako ikastaroetan parte hartzeko izen emate epea irekia dago. Aurtengoan, bi adin-mailatan banatu dira ikastaroak. Alde batetik, 6-12 urte bitarteko haurrei zuzendutako ikastaroak eta bestetik, 13 eta 18 urte arteko gazteentzakoak. Haurrei bideraturiko ikastaroen artean, tenisa, eskalada, aerobika eta igeriketa izango dira eta berritasun bezala, diabololo ikastaroa. Gazteentzako ikastaroen artean, berriz, diabololoa, batuka, defentsa pertsonala, tenisa, spinning-a, pilatesa eta body-pump-a. Ikastaro guztiak ekainaren 25ean hasiko dira eta uztailearen 20rarte iraungo dute (4 aste). Izena emateko Olaizaga kiroldegira zuzendu behar da.

### Herri Kirolen erakustaldia egingo da bihar Euskal Jaien mendeurreneko ospakizunen baitan

Iluntzeko 19:00etatik aurrera, Foruen Plazan herri kirolen norgehiagoka eta agerraldia egingo da. Hasiera batean, Ernesto Ezpeleta "Bihurri" (eibartarra) eta Jose Inazio Flores (arbizuarra) aizkolariak etortzekoak baziren ere, azken egunotan izan dituzten lesioen ondorioz, ezin izango dute etorri. Hauen ordeiz, Zelai aizkolari mallabiarra eta Agite aizkolari azpeitiarra izango dira gure artean.

Horiez gain, Maika Ariztegiketa eta Maider Manzisidor aurtuko dira aizkoran. Iburgurengo Ana Berasategik, berriz, iparraldeko jokoaren erakustaldia burutuko du eta Joseba Ostolaza zestoarrak harri jasotze lanetan jardungo du.

Egitarauaren bigarren zatian, bi hirkoteren arteko lehia izango da, aizkoran,



harri jasotzen, txinga eramaten eta korrika. Euria eginez gero, Olaizaga Kiroldegian egingo da herri kirolen ekitaldi hau.



#### "Bizkar hezurra, zure osasunaren ardatza"

Ekainak 5, asteartea, arratsaldeko 19:00etan Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Hizlaria: **Juan Alonso**, kiropraktikan doktorea.



## FUTBOLA

### Elgoibar C.D. kadete futbol taldeak Ohorezko Mailara igotzea lortu du



**K**adete mailako Elgoibar C.D. taldeak Ohorezko mailara igoera lortu du, Behobia taldea 11 eta 0 emaitzarekin mendean hartu ondoren.

Modu honetan, Hernandezen mutilek, denboraldiari bukaera ezinhobea eman diote, euren nagusitasuna eta joko maila ona agerian utziz.

#### Haundi futbol taldea

Urte honetako liga bukatu da eta, Haundi taldea, 12. postuan sailkatu da, 47 punturekin. 34 gol alde izan ditu eta 42 aurka. Etxean, 8 partida irabazi, 5 berdindu eta 6 galdu ditu. Kanpoan jokaturakoen artean bestalde, 4 neurketa irabazi, 6 berdindu eta 9 galdu ditu.

## [ EMAITZAK ]

### FUTBOLA

Haundi 0 - UPV 1

Elgoibar 2 - Arizmendi 5 (neskak)

Elgoibar 0 - Lagun Onak 0 (O. inf.)

Sporting de Herrera 6 - Elgoibar 0 (jub.)

Elgoibar 5 - Aretxabaleta 2 (aleb.)

### ESKU PILOTA

#### Lagunak Txapelketa

Idigoras 18 - Bilbao 6 (benj.)

Maiztegi 18 - Ansoa 15 (benj.)

Ariola 18 - Larrea 14 (benj.)

E. Arizabalaga 14 - Plazaola 18 (kad.)

Gabilondo 18 - Zubiaurre 8 (kad.)

Arillaga 18 - Salegi 14 (kad.)

## [ IDARRAGA SARIAK ]

### IDARRAGA KAFAK 9. SARIA

HAUNDIko jokalaririk erregularrena 06/07

Jokalaria	Puntuak
1. Navarrete	68
2. Guinea	53
3. Iker Martinez	53
4. Arruti	40
5. Iribar	37

## Umeentzako eskalada jardunaldiak gaur Kiroldegian

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak antolatutako eta Eskola kirolaren bame, eskalada jardunaldia izango da gaur Olaizaga kiroldegian arratsaldeko 17:00etatik aurrera. Josu Merino eskaltzailera izango da jardueraren koordinatzailea. Benjamin mailako umeek 17:00etan hasiko dute saioa eta alebin eta infantilek 18:30ean. Besteak beste, tirolina, rappel eta eskalada modalitateak ikasi eta praktikan jarriko dituzte.



## Eskubaloiko klubeko afaria

Ekainaren 16an eskubaloiko klubeko afari bat antolatu du Harzubi jabetxean. Jokalaririk guztiak eta nahi duten guraso guztiak joan daitezke. Menuaren prezioa 20 eurokoa da. Izena emateko Euskadiko Kutzako ohiko kontuan sartu behar da dirua ekainaren 4a baino lehenago.



## I. URTEURRENA

2006ko maiatzaren 30ean hil zen

**Amadeo Garate Badiolaren**

oroimenez urteurreneko meza izango da, larunbatean, hilak 2, arratsaldeko 19:00etan Parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

▶ Etxe eguzkitsua salgai. 3 logela, egongela, jangela, sukaldea, komuna. Berritua, altzariekin. Bi igogailu eta ganbara. ☎ **680707639**

▶ Etxea salgai San Roken. Berria bezalakoa. Prezio negoziagarria. Egongela, 3 logela, 2 komun, sukaldea eta despentsa. Garajea eta ganbara. ☎ **646405567**

▶ Etxea salgai Sigman. Bizitzera sartzeko. Bista onak. Balkoia, sukaldea, egongela, komuna, 3 logela. ☎ **676623114**

▶ Etxebizitza salgai Alizolan. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta lursail txiki bat kanpoaldean. Bizitzeko moduan. Prezio interesgarria. ☎ **619812448/676136199**

### ALOKAIRUA

▶ Pisua konpartituko nuke.

☎ **687323613 (Asif)**

▶ Etxea hartuko nuke alokairuan. Premiazkoa da. ☎ **627831529**

▶ 19 urteko mutil frantsesak familia euskaldun batean ostatu ordainduko luke. Ekainean. Logela eta gosari-afariak.

☎ **628087042 (Edume)**

## [ GARAJE eta LOKALAK ]

▶ Marradun garajea alokairuan herri erdi-erdian, Santa Ana 2an.

☎ **943743427**

▶ Garaje itxia alokatzen da Trenbide kalean.

☎ **943742009/660795301**

## [ AUTOAK ]

▶ 2. eskuko kotxe automatikoa erosi nuke. ☎ **639390808**

▶ Peugeot 306 familiarra salgai. 1.900 turbo diesel. 98koa. 170.000km. Egoera onean, beti garajejan.

☎ **610074096/943033613**

## [ BESTELAKOAK ]

▶ 2. eskuko izozkailua salgai. Bertikala da, hozkailua modukoa. ☎ **639390808**

▶ 2. eskuko ume kotxe kapota, aulkiak eta sakuak salgai. (Bebé confort) ☎ **629132713**

## OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarriak ordaindu egin behar dira. Iragarriak lau astetan agertuko dira.

Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro.

Eta bestelakoak 5 euro. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## LANA

### ESKAERA

• Emakumea gaixoak zaintzeko prest, egunez edo gauzez.

☎ **943172896 (Mertxe)**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketarako egiteko prest. ☎ **638221948**

• LHko klase partikularak eskainiko nituzke uztailean, goizez.

☎ **676753957**

• LH eta DBHko klase partikularak eskainiko nituzke udan.

☎ **943531054**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketarako egiteko prest. ☎ **699813826**

• Mutila lanerako prest: txofer, sukaldari laguntzaile, kamarero... ☎ **669768779**

• Neska orduka nagusiak edo umeak zaintzeko prest.

☎ **638221948**

• Emakumea goizez lan egiteko prest. tabernan, sukaldari, garbitzaile, zaintzaile...

☎ **654604798**

• Emakumea tabernan lan egiteko prest, sukaldari, garbitzaile...

☎ **690701118**

• Neska gauzez lan egiteko prest.

☎ **638221948**

• Emakumea nagusiak edo umeak zaindu, edo garbiketa lanerako prest. ☎ **667397100**

• Emakumea lanerako prest. Kamarera (esperientzia) edo garbitzaile moduan. ☎ **666032715**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketarako egiteko prest. Goizez bakarrik.

☎ **943740367/639520378**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketarako prest.

☎ **666771701 (Edileuza)**

• Emakumea lanerako prest.

☎ **671742142**

• Neska gaztea haurrek edo nagusiak zaindu, kamarera, sukaldari laguntzaile... ☎ **626394831**

• Alzheimerra duen pertsona zaintzeko emakume euskalduna prest.

☎ **943742330/660511781**

• Neska umeak edo nagusiak zaintzeko prest.

☎ **626767586/943531903**

• Neska gaztea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Egun erdiz.

☎ **680623606 (Olivia)**

• Neska lanerako prest.

☎ **663569263/676853028**

• Neska ingelesa au-pair bezala umeak zaintzeko prest, irailetik abendura. Nire erreferentziak Elgoibarko familiak ditu. (Molly)

☎ **943741569/627941227**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaindu, sukaldari laguntzaile... esperientziaduna.

☎ **638527915/943530132**

• Klase partikularak ematen ditut. LH, DBH, zikloak eta moduloak. Zientzia arloan.

☎ **653717972**

### ESKAINITZA

• Jatetxerako garbitzailea behar da. ☎ **943127334**

• Jatetxerako kamareroa behar da. ☎ **943121262**

• Bitxiak, barruko erropak eta edergintzako produktuak saltzeko pertsonak behar dira. Ez da esperientziarik behar. Irabazi onak. ☎ **607824892**

• Sukaldaria behar da.

☎ **943743196**

• Kamareroa behar da.

☎ **943743196**

• Tabernarako kamarero euskalduna behar da.

☎ **670654921**

• Kamareroa behar da eguneroko lan egiteko. Kontratuarekin. Esperientzia. ☎ **617250429**

• Dendarako langilea behar da, goiz eta arratsaldean, eta larunbateretan. Adorea, gida boimena eta euskara beharrezkoak. Bidali erreferentziak **195 posta kutxatilara**.

• Administrazio laguntzailea behar da lanaldi erdirako Elgoibarren.

☎ **943748566**

• Tabernarako kamareroa behar da, neska edo mutila. Asteguneretan, eta asteburuak txandaka.

☎ **943742897**

☎ **943742897**

### ABISUAK

• Urrezko eraztuna topatu dut. Juddi jartzen du. Umearena dirudi.

☎ **639971977**

• Hilaren 13an urte bateko umearen kazadora bakeroa galdu nuen Mintxeta eta Netto artean.

☎ **943531367**

• Setter ingeles arrazako txakur emea oparitzen dut. Txuri-beltza, 11 hilabete. Ez du ehizarako balio.

☎ **650223328**

BARREN astekarian

## MAKETATZAILEA BEHAR DA

**Eskatzen dugu:** Quarkxpress, phototshop eta freehand programak ezagutzea.

**Eskaintzen dugu:** Urtebeteko kontratua (egun osoko jardunean), luzatzeko aukerarekin.

**Curriculumak jasotzeko azken eguna: ekainak 15.**

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarte • Ubitarte 4, behea 20870 ELGOIBAR

Informazio gehiago: Tel.: 943 74 16 26 (Imanol) • E-posta: [imanol@elgoibarkoizarra.com](mailto:imanol@elgoibarkoizarra.com)

## [ZORIONAK]



▶ Zorionak **Enaral** Berandu baina... Muxu pila bat koadrilako eta etxekoan partez. Ondo pasa!



▶ Zorionak **Ainitzel** Zelako azkar pasatzen diren urteak! 13 urte! Ondo segi. Zure koadrilakoak.



▶ Zorionak **Sara** zure 2. urtebetetzean. Roke eta familiakoan partez.



▶ Zorionak **Ion** hilaren 28an 10 urte egin zenituelako. Gurasoen eta Malenaren partez.



▶ Zorionak **Gorka** ekainaren 5ean 7 urte egingo dituzulako. Aitaxo, amatxo eta denon partez muxu bat



▶ Zorionak **Antoni** Muxu handi bat 5 urte egin zenituelako. Etxeko guztien partea.



▶ Zorionak **Haritz** hilaren 30ean 3 urte egin zenituelako. Anaia Halef-en partez.



▶ Zorionak gure printzesari 8 urte egin dituelako. Musutxuak familiakoan partez.



▶ Zorionak eta patxuak **June** gaur urte bat egin duzulako. Etxekoan eta lkastolako lagunuen partez.



▶ Zorionak **Asier** ekainaren 2an 3 urte egingo dituzulako. Guraso eta ahizpa Araceliren partez.



▶ Zorionak **Naroa** hilaren 28an 7 urte egin zenituelako. Familiakoan eta bereziki, anaia Gabrielen partez.



▶ Zorionak **Joanel** Gure etxeko poxpolinak 6 urte ekainaren 4an! Muxu handi bat eta ondo pasa!



▶ Zorionak **amatxo** zure urtebetetzean. Muxu handi bat Angel eta Judith-en partez.



▶ Zorionak **Nahia** hilaren 25ean 3 urte egin zenituelako. Familiakoan partez.



▶ Zorionak **Maria** zure ama eta ahizparen partez.



▶ Zorionak **Tamara!** Izeko Petri eta lehengusuen partez.



▶ Azkenean 18 urte! Ez dalgu 1. urtebetetzeko irribarra. Zorionak **Rocio!** Urzi eta Andoniren partez.



▶ Zorionak **Peru** astelehenean 7 urte egin zenituelako. Muxu bat denon partez.



▶ Zorionak **gure etxeko sorginei** zuen 1. eta 5. urtebetetzean. Muxu pila bat aitaxo, amatxo eta aiton-amonen partez.



▶ Zorionak **Olaia eta Ana Betariz** maiatzaren 28an eta 31n zuen egunak izan direlako.



▶ Zorionak **Aitziber eta Iker!** Ondo pasa zuen ezkontza egunean. Elgoibarko familiakoan partez. Segi jator-jator ezkondu eta gero ere!



▶ Zorionak **Amets eta Beñat** gaur 5 urte egin dituzulako. Familiako guztien partez.

▶ Zorionak **Igor Lasuen** atzo urteak egin zenituelako. Guraso, Ekaitz, Ainhoa, txakurra eta familiako guztien partez. Ia beste lupina bat harrapatzen duzun.

▶ Zorionak **Ankas!** Hodei, Ekhi eta amatxoren partez.





## [ OKINDEGIA ]



3 igandea EIZAGIRRE



## [ FARMAZIAK ]

- GUARDIA 24 ORDUZ**
- 1 Ibañez
  - 2 Bidasolo
  - 3 Bidasolo
  - 4 Etxeberria (Santa Ana)
  - 5 Fernandez
  - 6 Yudego
  - 7 Zabaleta
  - 8 Etxeberria (Errosario)

\* *Beti dago guardiako farmazia Eibar/Emua zonaldean.*

**KANPOKO FARMAZIAK**  
**IBÁÑEZ**  
 Rekalde, 1 Soraluze.  
 Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**  
 Herriko enparantza 4, Garagarza.  
 Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**  
 Kalebarren, 9 Soraluze.  
 Tel: 943 75 13 84

## TRINITAE JAIK EGITARAU

### Ekainak 1 (barixakua)

22:30 K\*104 eta "BHU"

Antolatzailea: Malako Jai Batzordea

### Ekainak 2 (zapateria)

10:00 Trinitateetako VI. Azoka Berezia Leku Eder parkean eta Plaza Txikian

11:30 I. Bereziartua musika eta dantza eskolako trikitilarien kalejira

12:30 Ardi txakurren erakustaldia Nafarroa plazan.

14:30 Bazkari herrikoa Maalan (langabetu eta ikasleek 5 euro, 8 euro besteek) Ondoren, Lore Jokoak

Iluntzean, dantzaldia "Trikitate" taldearekin.

Antolatzailea: Malako Jai Batzordea

17:00 I. Bereziartua Musika eta Dantza eskolako ikasleen jaialdia, Udalaren Txistulari Taldeak eta Haritz EDTren laguntzarekin, Plaza Handian (euria izanez gero, Kiroldegian)

19:00 Herri kirolen erakustaldia eta norgehiagoka, Plaza Handian (euria bada, Kiroldegian).

24:00 Nagusien Tanborrada, Udal Musika Bandak lagunduta. Plaza Handitik abiatuta.

### Ekainak 3 (domeka)

#### TRINITATE EGUNA

09:00 Diana, Udal Txistulari Taldearekin

09:00 Ehiza Txakurren Lehiaketa Larraskandako zelaietan, La Union-en eskutik

10:30 XI. Artisanu Azoka, Leku Eder parkean

11:00 Meza Nagusia, Parrokiko Abesbatzaren laguntzaz

12:00 Haurren Tanborrada, I. Bereziartua Musika eta

Dantza Eskolaren laguntzaz

17:30 Erraldoi eta Buruhandien kalejira, Elgoibarko Dultzaineroekin

Makina Erramintan diharduen Elgoibarko enpresa batek

## Mekanika-langilea behar du:

### Beharrezkoa da:

- Goi mailako lanbide-heziketa titulua mekanika edo antzekoa izatea.
- CNC eta kalitate kontrolaren ezagutza.
- Honelako lanetan esperientzia izatea baloratuko da.
- Adina: 25 eta 35 urte bitartean.

### Eskaintzen da:

- Lan-kontratu mugagabea.
- Soldata adosteko.

Interesatuok, bidali CV helbide honetara:  
 220 posta-kutxa, 20870 Elgoibar.



## SORALUCE KOOP. E.ak MUNTATZAILE MEKANIKOAK BEHAR DITU

Mekanika arloko formazioa  
 (LH II edo Ziklo Formatzaile Teknikoak)  
 Esperientzia izatea kontuan izango da.  
 Lanean berehala hasteko aukera.

Bidali C.V GG.BB.etako departamentura.  
 Helbidea: Osintxu Auza z/g. 20570 - BERGARA  
 E-mail: soraluce@soraluce.com

## [ 1 BARIXAKUA ]

**17:00** ESKALADA JARDUNALDIA

Olaizaga kiroldegian

**17:30** KIRIBILKA PROGRAMA

Plaza Handian

**21:30** TRINIMUSIK DISKOAREN

AURKEZPEN KONTZERTUA

Mendaroko San Agustin kultur  
gunean.

**22:00** "BERTSOTRANPAK"

Bertsokak, Musika eta antzerkia

Herriko Antzokia

## [ 2 ZAPATUA ]

**10:00** ORGANU EMAILEEK MAHAI  
INFORMATIBOA

Plaza Handian 14:00ak arte.

**11:30** IMH HEZIKETA ZIKLOETAKO

ATE IREKIAK

IMHko Karakate gelan

**19:30** MANIFESTAZIOA

"Estradiziorik ez, Mikel askatu"  
lemapean. Madalatik abiatuta.

## [ 4 ASTELEHENA ]

**19:00** HERRI ESKOLAKO JAIALDIA

Herriko Antzokian

**19:30** I. BEREZIARTUA MUSIKA

ETA DANTZA ESKOLAKO KURTSO

BIKAERAKO KONTZERTUA

Musika Eskolako auditorioan

## [ 5 MARTITZENA ]

**19:00** HITZALDIA

Gaia: "Bizkar hezurra, zure  
osasunaren ardatza"

Hizlaria: Juan Alonso, kiropaktikan  
doktorea

Kultur Etxeko hitzaldi gelan

**19:00** HERRI ESKOLAKO JAIALDIA

Herriko Antzokian

## [ 6 EGUENA ]

**19:00** HERRI ESKOLAKO JAIALDIA

Herriko Antzokian

**19:30** I. BEREZIARTUA MUSIKA

ETA DANTZA ESKOLAKO KURTSO

BIKAERAKO KONTZERTUA

Musika Eskolako auditorioan

## [ 7 EGUAZTENA ]

**19:30** I. BEREZIARTUA MUSIKA

ETA DANTZA ESKOLAKO KURTSO

BIKAERAKO KONTZERTUA

Herriko Antzokian

## [ 8 BARIXAKUA ]

**19:30** I. BEREZIARTUA MUSIKA

ETA DANTZA ESKOLAKO KURTSO

BIKAERAKO KONTZERTUA

Herriko Antzokian

## ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN



«Diario de un escándalo»

2, zapatua: 19:30-22:15

3, domekia: 19:30-22:15

4, astelehena: 21:30

"Despues de la boda"

8, barixakua: 22:15

EIBAR, UNZAGA

«Piratas del caribe III»

1, barixakua: 18:30-22:00

2, zapatua: 18:30-22:00

3, domekia: 17:30-20:30

4, astelehena: 17:30-20:30

5, martitzena: 17:30-20:30

6, eguaztena: 17:30-20:30

BARRENez ez du gerta litezkeen  
emanaldien aldaketan erantzukizunik.

## «Diario de un escándalo»



Zuzendaria: Richard Eyre.

Antzezleak: Judi Dench, Cate Blanchett, Bill Nighy.

Barbara (Judi Dench), irakasle autoritarioa da. Bakarrik bizi da, lagunik gabe, ez dauka inor bere penak edo poztasun oneak kontatzeko. Bere mundu txikia goitik behera aldatuko du arte irakasle berriak, Sheba Hart (Cate Blanchett) andreak. Barbarak betidanik amestu zuen lagun leiala da Sheba, elkarren lagunak izateko jaiok izan direla dirudi. Adiskidetasuna kolokan jarriko duen aurkikuntza egingo du baina Barbarak, Shebak ikasle gazte batekin duen amodio erlazioaren berri ezustean izaten duenean.

# Atzera hegira



**1943**. urteko erretra-  
tu zahar hau

**Sabina Arrietak** laga digu. Trinitade jaietako tanborradako argazkia da. Ikusten den bezalaxe, aspalditik datorren tradizioa da hau, nahiz eta gero, urte batzutan galdu egin zen. Iaz, Tanborradaren Batzordea sortu zen, eta aspaldian ezagutu genuen tanborradarik ikusgarriena atera zen kalera. Bihar ere, sorpresaz beteriko tanborradak alaituko ditu Elgoibarko kaleak. Gogora ditzagun zein diren argazki honetan ageri direnak:

Ezkerreko ilaran, aurretik atzera: **Jose Jauregi, Jose Gabilondo (†), Asensio Olalde (†), Diego Escudero (†), Manolo Unzilla, Javier Zengotita, ezezaguna.**

Erdiko ilaran: **Etzegiña zuzendaria (†) eta Trini Barrutia, Jesus Gabilondo (†), Antonio Gabilondo (†), Pepe Suarez (†), Manolo Riaño (†), ezezaguna, ezezaguna eta Felix Garcia (†).**

Eskuineko ilaran: **Nemesio Ansola, Lucio Ostolaza (†), Antonio Azpiazu (†), Jose Mari Lizundia (†), Pako Iriondo, ezezaguna eta Jose Mari Gabilondo (†).**

Bandakoak: **Inazio Gonzalez Bastida zuzendaria (†), Jose Maria Gil (†), Canuto Gabilondo (†), Fernin Ruiz de Gauna, Julian Iriondo. Santi Ezenarro (†), Jose Zubiaurre, Luis Arriola (†), Julio Bueno (†), Luis Irureta (†), Moises Agirre (†), Pepe Arano (†).**



## I. URTEURRENA

2006ko ekainaren 6an, 33 urte zituela istripuz hil zen **Jose Manuel Lazarobaster Badiola**ren oroimenez urteurreneko meza izango da, igandean, hilak 3, goizeko 10:00etan Altzolako San Juan Bautista elizan. Joango zaretenoi eskerrak alde z aurretik.







**RENAULT**  
ocaSiÓN

# Autoberri Aukera



Clio 1.5 DCI Conf. Express.  
5a, 85 zp, 5j, aire girotuarekin

**13.030€\***

Scénic II 1.5 DCI Conf. Express.  
5a, 85 zp, 5j, klimatizagailua  
eta pintura metaliztua

**15.200€\***



compremioreNAULT Garantiaoca SiÓN



\*Transferentzia-gastuak bane. Eskaintza honek izakinak agortu arte balio du. Kusteru diren ibilgailuen bertsioa behar bada ez daogioie eskaintzakoet.



## Eraman DVD bat

ibilgailu bat  
erosita\*

Eskaintza honek aukerako edozein ibilgailu erosit gero balio du. 07/06/30 baino lehen egindako eskariekin balio du. Erinbestekoa da inagarki hau erakustea.

### AUTOBERRI

Pol. Ind. Anoeta, s/n. - Telf. 943 65 28 43/45 - TOLOSA  
ARRASATE - AZPEITIA - BERGARA - ELGOIBAR - IRUN



## ELGOIBAR BH INSTITUTUA 2007/08 IKASTURTEA

Arregitorea, 2

Tel.: 943 74 80 19

E-posta: [bulegoa@elgoibarbh.net](mailto:bulegoa@elgoibarbh.net)

[www.elgoibarbh.net](http://www.elgoibarbh.net)



### ERDI MAILAKO ZIKLOAK

Ibilgailuen elektromekanika

Karrozeria

Merkataritza

Erizaintza laguntza osagarriak

### GOI MAILAKO ZIKLOAK

Automozioa

Administrarritza eta finantzak



### Aurrematrikula epea: ekainaren 1etik 7ra

Azpiegitura teknologiko aurreratuen, enpresa simulatuak, lan praktikak European, lan munduan sartzeko emaitza ezin hobekak.

ETOR ZAITEZ ETA EZAGUTU GAITZAZU ZURE ERABAKIA HARTU AURRETIK.

# Trinitateak

# 07



*Ondo pasa jaiak!*

*Zorionak  
elgoibartar guztioi  
Udalaren izenean*

100  
1907-2007  
Euskal Jaiak



KULTURA SAIA

